

PIZGARRIEN POLITIKEN ETA PROZEDUREN ESKULIBURUA



2007ko azaroa

AURKIBIDEA

1. HELBURUA.....	3
2. NORAINOKOA	4
3. DEFINIZIOAK ETA PRINTZIPIO OROKORRAK.....	5
3.1. Definizioak.....	5
3.2. Printzipio orokorrak	6
4. INTERES GATAZKEN KATALOGOA.....	7
4.1. Pizgarrien katalogoa	7
5.2. Pizgarrien katalogoa eguneratzeko prozedura	8
5. PIZGARRIEI BURUZKO INFORMAZIOA BEZEROENTZAT	9
I. ERANSKINA: Pizgarrien tratamendurako eskema.....	10

1. HELBURUA

Laboral Kutxaren pizgarri-politika definitzea da helburua, eta halaber, MIFID produktu eta zerbitzuen alorrean jaso ohi dituen pizgarriak etengabe detektatzeko eta eguneratzeko prozedurak ezartzea, pizgarri horiek bezeroen intereserako kudeatzea, eta beharrezkoa denean, bezeroei jakinaraztea.

2. **NORAINOKOA**

Eskuliburu honetan honako alderdi hauek biltzen dira:

- Laboral Kutxaren pizgarrien eta printzipioen deskribapena, haien tratamenduari dagokionez.
- Egon litezkeen pizgarrien katalogo bat identifikatzea.
- Pizgarrien alorreko xehetasunak bezeroei jakinarazteko prozedurak.

Pizgarri guztiak hartu dira kontuan, interes-gatazkak sorraraz ditzaketen ala ez kontuan izan gabe.

3. DEFINIZIOAK ETA PRINTZPIO OROKORRAK

3.1 Definizioak

Mifid araudiaren arabera, hiru komisio edo pizgarri mota bereiz daitezke:

1. Ordainsari eta komisio baimenduak (aurrerantzean Ba)

Bezeroari edo bezeroaren kontura jarduten duen norbaiti ordaindutako edo emandako edota bezeroak edo bezeroaren kontura jarduten duen norbaitek eskainitako ordainsariak, komisioak edo mozkin ez-monetarioak.

2. Ordainsari eta komisio justifikagarriak (aurrerantzean J)

Hirugarren bati edo hirugarren baten kontura jarduten duen norbaiti ordaindutako edo emandako edota hirugarren batek edo hirugarren baten kontura jarduten duen norbaitek eskainitako ordainsariak, komisioak edo mozkin ez-monetarioak.

- i. Ordainsariak, komisioak edo mozkinak daudela, haien ezaugarriak eta zenbatekoa argi eta garbi jakinarazi beharko zaizkio bezeroari, xehetasun guztia zehatz-mehatz eta ongi ulertzeko moduan adieraziz, dagokion inbertsio-zerbitzua edo haren zerbitzu osagarria eman baino lehen. Zenbatekoa zehaztu gabe badago, zenbateko hori kalkulatzeko metodoa jakinarazi beharko zaio.
- ii. Ordainsarien edo komisioen ordainketak, edo mozkin ez-monetarioak ematea bezeroari eskainitako zerbitzuaren kalitatea areagotu egin beharko du, eta gainera, ez du inolako eragozpenik sorraraziko, enpresaren betebeharra, hots, bezeroaren intereserako jardutea, egoki bete dadin.

3. Beharrezko ordainsari eta komisioak (aurrerantzean Be)

Ordainsari egokiak, inbertsio-zerbitzuak ematea ahalbidetuko dutenak edo zerbitzu horiek emateko beharrezkoak direnak, –hala nola zaintza-gastuak, kitapen- eta truke-gastuak, tasa arautzaileak eta aholkularitza juridikoko gastuak. Horiek guztiek ez dute inolako eragozpenik eragingo enpresaren betebeharrari erantzuteko, hau da, enpresak bezeroari gehien komeni zaiona egiteko zintzotasunez, inpartzialtasunez eta profesionaltasunez jarduteko. Zerrenda hori ez da exhaustiboa.

Hiru ordainsari edo komisio horietako bakoitza aztertuko dugu eskuliburu honetan.

3.2 Printzipio orokorrak

Pizgarriei dagokienez, honako hauek dira Laboral Kutxaren printzipio orokorrak:

Laboral Kutxaren bezeroei dagokionez, erakundearen jarduera arautzen duten printzipioak **zintzotasuna, inpartzialtasuna eta profesionaltasuna** dira.

Laboral Kutxak **bere bezeroen interes hobereana lortzeko** jardungo du beti.

Araudiak horrelakorik eskatzen duenean, Laboral Kutxak, zerbitzu jakin bat eman baino lehen, zerbitzu horren truke hirugarrenei kobratzen zaizkien pizgarriei buruzko beharrezko informazioa emango dio bezeroari, **gardentasun osoz**.

Laboral Kutxaren iritziz, inbertsio-zerbitzu bat emateari dagokionez kobratutako edo ordaindutako edozein komisiok **interes-gatazka** sorraraz dezake, eta, beraz, araudian ezarritako murrizketak eta eskuliburu honetan ez ezik, Kutxako “Interes Gatazketarako Politiken eta Prozeduren Eskuliburuan” ere ezarritakoa hartuko da kontuan.

Horrenbestez, **Laboral Kutxak kobratutako edozein komisio justifikatuta egongo da**, eman den zerbitzuaren baldintza espezifikoaren arabera.

4. PIZGARRIEI BURUZKO GATAZKEN KATALOGOA

4.1 Pizgarrien katalogoa

Interes-gatazka erreala edo potentziala eragin dezaketen egoerak identifikatu eta katalogatzen ditu Laboral Kutxak.

Laboral Kutxak bezeroekin gauzatutako jardueraren truke ordaindu edo jaso daitezkeen ordainsari edo komisio posibleen zerrenda egin du, pizgarri horiek errazago detektatzeko eta ezarritako prozeduraren arabera tratatzeko:

1. ***Ordainsari eta komisio baimenduak (aurrerantzean Ba)***

Laboral Kutxak emandako zerbitzuen truke bezeroek edo bezeroen kontura ordaindutako komisioak dira. Komisio horiek publikoak dira, Kutxako tarifei buruzko liburuxkan daude jasota, eta bezeroei emandako zerbitzua jaso aurretik jakinarazten zaizkie, bezeroei jakinarazteko politika eta prozeduren arabera.

Adibide gisa honako hau aipatuko dugu:

- Laboral Kutxa merkaturen batean exekutatzailea bada: bezero baten kontura, aginduak transmititzeagatik zerbitzuen truke, erabat instrumentala den finantza-erakunde batek Kutxari egindako ordainketak.

2. ***Ordainsari eta komisio justifikagarriak (aurrerantzean J)***

Laboral Kutxak emandako zerbitzuen truke, hirugarrenek ordaindutako edo jasotako komisioak dira. Komisio horiek behar bezala formalizatu beharko dira, beharrezkoa balitz, hirugarren baten aurrean justifikagarriak eta gardenak direla egiaztatzeke moduan.

Hala badagokio, ezinbestekoa da honako hau egiaztatzea:

- Bezeroari eskaintzen diogun zerbitzuaren kalitatea hobea delako kobratzen dugula komisioa.
- Bezeroaren interes onenaren alde jarduten dugula beti.

Orokorrean, Laboral Kutxak ez du osteratzen lagapenik onartzen, kontzeptua jada bezero batek ordaindu badu. Salmenta-helburuen ondoriozko ordainketarik ere ez du onartzen.

Laboral Kutxak, oro har, pizgarri posibleen katalogo honi eusten dio:

1. Agenteei ordaindutako komisioak.
2. Funtsak merkaturatu eta banatzeagatiko komisioak. Komisioen ostera-lagapena.
3. Komisioen beste ostera-lagapen posible batzuk, beste erakunde batzuek gauzatutakoak, Laboral Kutxak erakunde horien zerbitzuak merkaturatzen dituenean.
4. Produktuak merkaturatzen dizkion erakunderen batek emandako prestakuntza eskuratzea. Soilik egin ahal izango da baldin eta merkaturatzea edo bezeroekiko aholkularitza hobetzeko bada, toki ez-exotikoetan egiten bada eta kontzeptua egokia bada.
5. Broker baten eskutik datorren ekipamendu informatikoa lortzea.

3. Beharrezko ordainsari eta komisioak (aurrerantzean Be)

Honako bi baldintza hauek betetzen dituzten ordainketen zerrenda ez da exhaustiboa:

- Zerbitzua ematea ahalbidetzen dute, hau da, beharrezkoak dira horretarako.
- Ez doaz Laboral Kutxak pizgarrien eta interes-gatazken gainean dituen printzipioen aurka.

Adibide gisa honako hauek aipatuko ditugu:

- Zaintzako gastuak
- Kitapen-gastuak
- Truke-gastuak
- Tasa arautzaileak
- Aholkularitza juridikoko gastuak

4.2 Pizgarrien katalogoa eguneratzeko prozedura

Indarreko araudian eta Eskuliburu honetan ezarritako eskakizunak gertatu aurretik egiaztatu beharko dira. Hortaz, ordainsari, komisio edo mozkin ez-monetarioren bat ordaintzea onargarria den ala ez momentuan bertan balioetsi beharko da, hots, enpresa ordaintzailearekin edo jasotzailearekin akordio zehatza planteatzen den unean, eta ez ordainketak/kobrantzak egin ondoren.

“Pizgarriak” sor ditzaketen hirugarrenetikiko akordio guztien berri emango zaio, behar adinako aurretiaz, Araudia Betetzeko Departamentuari. Hark, dagokion azterketa egin ondoren, Laboral Kutxak ezarritako prozedurari jarraituko dio.

5. PIZGARRIEI BURUZKO INFORMAZIOA BEZEROENTZAT


Laboral Kutxak gardentasun-printzipioa aplikatuko du. Horretarako, eta printzipio horretan oinarrituta, bezeroei pizgarrien berri emateko prozedura ezarri du. Dena den, pizgarri horiek justifikagarriak izango dira beti (eskuliburu honetan 4.1. atalean “J” gisa sailkatuta daude).

Araudian ordainsarien, komisioen edo mozkin ez-monetarioen sistemaren funtsezko baldintzak modu laburtuan jakinarazteko aukera jasotzen da, betiere Laboral Kutxak, bezeroak eskatzen duenean, xehetasun gehiago emateko konpromisoa hartzen badu eta konpromiso hori betetzen badu.

Laboral Kutxak bi sistema ditu bezeroei “J” komisioen berri emateko:

- Komunikazio laburra: kontratua egin aurretik eta eraginpean hartutako zerbitzu jakin baterako, pizgarriaren funtsezko baldintzen berri ematen zaio bezeroari (pizgarria dagoela eta haren ezaugarriak) Bezeroari informazio egokia ematen zaio, inbertsio-zerbitzuarekin edo zerbitzu osagarriarekin aurrera jarraitu ala ez edo informazio osoa eskatu erabakitzeko nahikoa informazio izan dezan.
- Pizgarriari buruzko informazio osoa: bezeroak idazki bidez eskatuz gero, Laboral Kutxak informazio argia, osoa, zehatza eta ulergarria emango dio, pizgarriaren ezaugarriak eta zenbatekoa azalduz.

I. ERANSKINA: Pizgarrien tratamendurako eskema



Oharrak:

(1) **Zerbitzuaren ezaugarriak.** “Aholkularitzaren edo gomendioaren”, “merkaturatzearen/banatzearen” eta abarren kontzeptupean lortutako ordainketa bidezkoa izan daiteke, baldin eta komisio hori jasotzearen ondorioz, aholkularitza edo gomendia okerra ez bada.

(2) **Zerbitzuaren kalitatea.** Hirugarrenengatik jasotako komisio edo mozkin ez-monetario batek Sozietateak bezeroei emandako zerbitzuaren kalitatea handitzen ote duen eta Sozietateak bezeroaren alde jarduteko eragozpena ote den jakiteko, beharrezkoa izango da honako alderdi hauek kontuan hartzea:

(a) Bezeroari emandako inbertsio-zerbitzua edo zerbitzu osagarria zer motatakoa den, eta bezeroarekin hitzartutako betebeharren betetze-maila zein den. Esate baterako, zerbitzuaren kalitatea handitzen duen jakiteko, garrantzitsua izango da “pizgarriekin” exekuzio onenaren printzipioa eta interes-gatazken kudeaketari buruzko arauak betetzen ote diren argitzea.

(b) Bezeroarentzako eta Sozietatearentzako aurreikusitako mozkina. Ildo horretan, Sozietateak hirugarren batengandik ordainketarik jasotzen badu, zehaztu beharko da kostua nolabait bezeroaren gain egongo den azkenean, eta jasandako kostu handiago hori konpentsatzen duen mozkinen bat lortuko ote duen egoera horretatik bezeroak.

(c) Sozietatearen portaera alda dezakeen pizgarririk egongo den ala ez, bezeroaren interesaren alde ez jardutea eragin dezakeenik.

(d) Sozietatearen eta mozkina jaso edo ematen duen erakundearen arteko harremana, harreman ekonomikoak, lehiakoak, merkataritza-arlokoa, eta abar kontuan hartuta.

(e) Ordainketa-elementuaren edo mozkin ez-monetarioaren elementuaren ezaugarriak, zein egoeratan ordaintzen den eta baldintzak ezartzen ote dituen.

Horren haritik, Sozietateak uste du “bezeroari eskaintzen zaion zerbitzuaren kalitatea handitu egiten dela” honako kasu hauetan:

Pizgarriaren ondorioz, eragiketaren arriskua txikitzen da edo exekuzio onenaren printzipioak betetzen laguntzen da eta egon litezkeen interes-gatazkek saihesten dira (adibidez, routing-sistema edo bestelako plataforma teknologikoak erabiltzea).

Baldintza ekonomiko hobeak lortzen dira bezeroarentzat, zuzenean jardunda lortuko zirenen aldean.

Prestakuntza jasotzen da, eta horren ondorioz bezeroei informazio gehiago eta hobe ematen zaie.

Txostenak eta azterketak jasotzen dira, eta horrek bezeroei zuzendutako aholkularitza eta gomendioak hobetzen laguntzen du.